

Arropa marka bat:

Gu Nahia Azkue, June Garro, Joane Vidaurre, Luzia Cid eta Ainere Urresti gara, enpresaren jabeak. Gure enpresak "Restyle" izena du. Bere izenak dioen bezala arroparekin lotutako enpresa bat da.

Proiektu honek hiru atal ditu: arropa jasotzeko bilgunea, industria eta denda. Lehenengo atalean jendeak beharrezkoa ez duen arropa eramango du gure bilgunetara. Handik kamioien bidez gure lantegira eramango dira bilguneetan jasotako jantziak. Jantziak kolore eta telaren arabera sailkatuko ditugu, eta jantzi berriak sortuko ditugu. Amaitzeko, sortutako jantzi berriak gure dendan salduko ditugu denontzat eskuragarri dauden prezio batean.